

# I ANTROPOLOGIA FEMINISTA KONGRESUA

## KONGRESUAREN OSTEKO ZIRKULARRA

### CIRCULAR POST-CONGRESO

#### EUSK

Hiru aste igaro dira Donostian I Antropologia Feminista Kongresua egin zenetik. Joan den astean balantzea egin genuen Antolakuntza Batzordean eta mezu hau idaztea erabaki genuen, berriz ere eskerrak emateko. Eskerrik asko parte hartzeagatik eta kongresuan egin dituzuen ekarpenengatik, eta eskerrik asko, baita ere, hain giro ona egotea posible egiteagatik. Gure ustez, guztion artean agerian utzi dugu Antropologia Feministak gaur egun duen garrantzia, bai diziplinari dagokionez bai ikerketa sozial eta feministari dagokionez, eta erakutsi dugu jorratzen ditugun gaiak eta lantzen ditugun ikuspegiak asko eta askotarikoak direla, baita aurrean ditugun erronkak eta desafioak ere. Baina, egiten ari garen lan zehatzaz eta haren proiektzio sozialaz gain, uste dugu orain ere elkarrekin ibili nahi dugun antropologo feministen komunitate honen etorkizunean pentsatzea dagokigula. Data garrantzitsu bat hurrengo kongresua izango da. Eskerrik asko Granadako lankideei lekukoa hartzeagatik. Kongresuak, Donostian ikusi dugu, mugarriak dira, baina ziur helburu eta estrategia kolektiboak bateratzeko modu gehiago bururatuko zaizkigula.

Mezu hau aprobetxatzen dugu Inge Mendiorozek kongresuaren hiru egunetako grabaketak bilduz egin duen laburpen-bideoaren esteka bidaltzeko: <https://youtu.be/Jq9legbHzfg>

Era beran, gogorarazten dizuegu gonbidatuta zaudetela Ankulegi elkarteak duen espazio digitalean zuen ekarpenak argitaratzera.

Besarkada bat eta laster arte.

-----

#### CAST

Han pasado ya tres semanas desde que se celebró el I Congreso de Antropología Feminista en Donostia. La semana pasada hicimos balance en la Comisión Organizadora y decidimos escribiros este mensaje para daros una vez más las gracias. Gracias por vuestra participación y por vuestras aportaciones al congreso, y gracias también por haber hecho posible que hubiera tan buen ambiente. Creemos que entre todas hemos puesto de manifiesto la importancia de la Antropología Feminista en el panorama actual tanto de la disciplina como de la investigación social y feminista, y hemos demostrado que los temas que abordamos y las perspectivas desde las que trabajamos son muchas y variadas, como lo son también los retos y desafíos a los que nos enfrentamos. Pero, además de la labor concreta que estamos haciendo y de su proyección social, creemos que ahora nos toca también pensar en el futuro de esta comunidad de antropólogas feministas que queremos caminar juntas. Una fecha importante será el próximo congreso. Gracias a las compañeras de Granada por recoger el testigo. Los congresos, lo hemos visto en Donostia, son hitos, pero seguro que se nos ocurren más maneras de poner en común objetivos y estrategias colectivas.

Aprovechamos este mensaje para enviaros el link del video-resumen que Inge Mendioroz ha realizado recogiendo distintos momentos de los tres días del congreso: <https://youtu.be/Jq9legbHzfg>

Asimismo, os recordamos también que estáis invitadas a publicar vuestras aportaciones en el espacio digital de la Asociación Ankulegi.

Un abrazo y hasta pronto.